

Bilbo, hiri-mugikortasun iraunkorraren munduko hiriburua

- **SUM Bilbao 21** biltzarra urriaren 6an eta 7an antolatuko da hiri-mugikortasun iraunkorraren erronkak eta aukerak aztertzeko eta mundu osoko hirien arrakasta-kasuak ezagutzera emateko.
- Bertan, Estatu Batuak, Kenia, Kolonbia, Albania, Erresuma Batua, Argentina, Portugal, Herbehereak, Peru, Belgika, Alemania, Costa Rica, Mexiko, Filipinak, Espainia eta beste hainbat herrialdeetatik etorritako 90 adituk baino gehiagok parte hartuko dute.
- Bilboko Udalak eta Petronorrek antolatuta, SUM Bilbao 21 biltzarreko eztabaidek hiru gai nagusi izango dituzte ardatz: trantsizio energetikoa; gobernantza eta finantzaketa; eta mugikortasuna, digitalizazioa eta berrikuntza.
- Bertaratuko diren erakundeen artean, honako hauek nabarmen daitezke: Iomob, Correos, ONU Habitat, Repsol, Estafeta Mexicana, Ibil, Alsa, Green Hydrogen Coalition, Euskal Logistika eta Mugikortasun Klusterra, Tecnalía, Women In Mobility London, Garraio Publikoaren Nazioarteko Batasuna edota Irizar e-mobility.
- Biltzarra formatu hibridoan antolatuko da: modu presentzialean Euskalduna Jauregian eta online zuzenean. Bi kasuetan, nahitaezkoa da www.sumbilbao.com webgunean aldeztu izena ematea.

Bilbon, 2021eko irailaren 22an. Bilbo hiri-mugikortasun iraunkorraren munduko hiriburua izango da berriz ere urriaren 6an eta 7an, SUM Bilbao 21 biltzarraren eskutik. Topaketaren bigarren edizioak bost kontinenteetako 90 aditu baino gehiago bilduko ditu, eta guztien artean, hiri-mugikortasunarekin lotutako egungo gairik nabarmenenak jorratu, hiriek mugikortasun iraunkorragoa finkatzeko dituzten erronkak eta aukerak aztertu eta mundu osoko hirien arrakasta-kasuak emango dituzte ezagutzera.

Bilboko Udalak eta Petronorrek antolatutako biltzar honetako hitzaldiak Estatu Batuak, Kenia, Kolonbia, Albania, Erresuma Batua, Argentina, Portugal, Herbehereak, Peru, Belgika, Alemania, Costa Rica, Mexiko, Filipinak, Espainia eta beste hainbat herrialdetako agintaritzak, enpresa eta zentro teknologikoen entzute handiko ordezkariak emango dituzte. Aditu horiek guztiak estu-estu lotuta daude energia sektorearekin, automobilgintzarekin, garraioaren industriarekin, mugikortasun, logistika eta banaketaren arloetako zerbitzuekin, teknologiarekin, telekomunikazioekin, azpiegiturekin eta finantza arloarekin, eta horien parte-hartzeak hiru gai nagusi hauek izango ditu ardatz: trantsizio energetikoa; gobernantza eta finantzaketa; eta mugikortasuna, digitalizazioa eta berrikuntza.

Trantsizio energetikoa

Alde batetik, topaketak arreta berezia emango die hiriek trantsizio energetikoan zein egungo erregulazio-esparruan duten eginkizunari eta hidrogenoak, energia garbiek eta energiaren deskarbonizazioak eskaintzen dituzten aukerei.

Ardatz honetan, pertsona hauen parte-hartzea nabarmen daiteke: Tomás Malango, Repsoleko Hidrogenoaren arloko Zuzendaria; Abigail Binay, Filipinetako Makati hiriko Alkatea eta Global Covenant of Mayors for Climate and Energy-ko Alkate eta Liderren Batzordeko kidea; José López-Tafall, ANFACeko Zuzendari Nagusia; Javier Hurtado, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko Sailburua; Rosa Alarcón, Bartzelonako Udaleko Mugikortasuneko Zinegotzia; edota Aitor Arzuaga, Ibileko Zuzendari Nagusia.

Gobernantza eta finantzaketa

Bigarren ardatz tematikoak gobernantza eta finantzaketa izango ditu aztergai eta arreta berezia emango die trantsizio energetikoaren Europako agendari, klima-aldaketa arintzeko arau-esparruei, aliantza publiko-pribatuei eta metropoli-tako zein maila anitzeko gobernantzari.

Horretaz guztiaz eztabaidatzeko, SUM Bilbao 2021 biltzarrean izango dira Pere Calvet, Kataluniako Generalitateko Trenbideetako Zuzendari Nagusia eta Garraio Publikoaren Nazioarteko Batasuneko Ohorezko Presidentea; Gorka Urtaran, Gasteizko Alkatea eta EUDELeko Presidentea; Luisa Elena Burga, Limako metropoli-eskualdeko Mugikortasuneko Idazkaria; Cristina Lobillo, Europar Batasuneko Zuzendaritza

Nagusiko Energia-Politikako Burua; eta Carlos Cuadrado, Txileko Huechuraba hiriko Alkatea eta FLACMAko Presidenteordea; besteak beste.

Mugikortasuna, digitalizazioa eta berrikuntza

Hirugarren ardatz tematikoa “Mugikortasuna, digitalizazioa eta berrikuntza” izango da. Mugikortasunaren kasuan, ondo kontuan hartuko da konektatua, irisgarria, planifikatua eta garraio publikoaren erabilerari lotua izan dadila. Mugikortasunaren zerbitzura sortu diren teknologia berriak aztertuko dira, baita pertsonen nahiz merkantzien mugikortasunak ekonomia garatzeko dakartzan aukerak ere.

Azken ardatz honek honako hauen ikuspegiak bilduko ditu: Raúl Blanco, Industria eta ETEetako Idazkari Nagusia; Joao Galamba, Portugalgo Gobernuako Energiaren Arloko Estatu Idazkari Laguntzailea; Pere Navarro, DGTko Zuzendari Nagusia; Pedro Mier, AMETICEko Presidentea; Luis Moreno, Galiziako Automobilgintzaren arloko Zentro Teknologikoko Zuzendari Nagusia; edo Eneko Goia, Donostiako Alkatea.

Era berean, hainbat arrakasta-kasu aurkeztuko dira Iomob, Correos, ONU Habitat, Estafeta Mexicana, Euskadiko Logistika eta Mugikortasun Klusterra, Women In Mobility London, Green Hydrogen Coalition, Alsa, Kapsch TrafficCom, Irizar e-mobility eta Tecnaliaren eskutik, besteak beste.

SUM Bilbao 21 formatu hibridoan antolatuko da, modu presentzialean Euskalduna Jauregian eta online, eta zuzenean ikusi ahal izango da munduko edozein lekutatik. Kasu batean zein bestean, nahitaezkoa izango da aldez aurretik www.sumbilbao.com webgunean izena ematea.